



AGINDUA, MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA EGITEN BAITA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TRENBIDE-SEKTOREAREN LEGE-AURREPROIEKTUA EGITEKO.

Mugikortasun Jasangarriaren Sailak, Euskadiko Trenbide Sektorearen Legearen aurreproiektua egiteko administrazio eskudunak, erabaki du egokia dela lege horren izapidetzea bultzatzea, eta, horregatik, nahitaezkoa da kontsulta publiko bat bideratzea arau-xedapen baten proiektua egin aurretik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua jasotzen duten bezala.

Horrela, agindu honen bidez, eta lehen aipatutako araudia betez, Euskadiko Trenbide Sektorearen Legearen aurreproiektua egin aurreko kontsulta-izapidea bideratzen da, xedapenak eragindako herritarrek eta gainerako erakundeek aukera izan dezaten proposatzen den arauan parte hartzeko eta ekarpenak egiteko, eragindako sektoreen artean ahalik eta parte-hartze eta adostasun handiena lortzeko.

Zehazki, kontsultak honako alderdi hauei buruzkoa izan behar du (eranskinen ematen da alderdi horiei buruzko informazioa):

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.
- Arauren helburuak.
- Egon daitezkeen bestelako aukera erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Horregatik guztiagatik, kontsultak:

- Proiektatutako arau-aldaketaren eraginpean egon daitezkeen herritarrak, erakunde publikoak, erakundeak edo elkarteak agindu honetan jasotzen den informazioari buruzko iritzia ematera gonbidatzen ditu.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da.
- Hamabost egun balioduneko epea ezartzen da eragindako erakundeek, herritarrek eta erakundeek egokitzat jotzen dituzten iradokizun edo ohar guztiak aurkez ditzaten.

Era berean, aurretiazko informazio publikoaren izapide hau Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 8. artikulutik 11. artikulura arautzen diren prestaketa-fasearen barruan sartzen da.

Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, hau



EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Euskadiko Trenbide Sektorearen Legearen aurreproiektua egin aurretik, kontsulta publikoaren izapidea egitea.

Bigarrena.- Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzea, arauak eragindako herritarrek eta erakundeek, hala nahi badute, agindu honen eranskinean planteatutako alderdiei buruzko ekarpenak helarazi ahal izan ditzaten hamabost egun balioduneko epean, agindua argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen,

SUSANA GARCÍA CHUECA
MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILBURUA

ERANSKINA

1.- Arau-ekimen honekin konpondu nahi diren arazoak

Trenbide-sektorearen Estatuko lege-esparruak trenbide-azpiegiturak, trenbide-zirkulazioko segurtasuna eta bidaiarien eta salgaien trenbide-garraioko zerbitzuak arautzen ditu, baina, funtsean, Interes Orokorreko Trenbide Sarearen eremura mugatzen da, Estatuaren eskumen eskusibokoa baita.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, trenbide-sistema, aipatutako Interes Orokorreko Trenbide Sareaz gain, honako hauek ere osatzen dute: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren titulartasuneko azpiegiturak, toki-administrazioen titulartasunekoak eta osorik Euskadiko lurraldearen barruan kokatuta egon daitezkeen titulartasun pribatuko azpiegiturak, bai eta azpiegitura horietan zirkulatzen duten trenbide-garraioko zerbitzuek edo, hala badagokio, Estatuko Interes Orokorreko Trenbide Sareko bideetatik zirkulatzen dutenek ere, baldin eta garraio-zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen barruan hasten eta amaitzen badira, arlo horretan indarrean dagoen eskumen-banaketaren arabera.

Egia da Euskadiko trenbide-sisteman jarduten duten zerbitzu-operadoreek eta tren-azpiegituren administratzailearen eginkizunak betetzen dituen erakundeak beren araudi erregulatzailerik propioa dutela, baina Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-garraioko sektoreak lege-esparru propioa behar du, baina gaur egun ez du halakorik.

EAEko trenbide-sistema definituko duen lege-esparrua, sektorea mugikortasun jasangarriaren berezko helburuen barruan integratzeko, lurraldeko tren-azpiegiturak planifikatzeko eta gauzatzeko prozedurak zehazteko, bidaiariak eta salgaiak garraiatzeko zerbitzuak ematen dituzten enpresek azpiegitura horietan bete beharreko baldintzak eta betekizunak zehazteko, zerbitzu horien erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak ezartzeko edo ikuskatzeko eta zehatzeko ahalaren irismena arautzeko.

Bestalde, beharrezkoa da Euskadiko trenbide-sisteman trenbide-jarduerak egiteko bete behar diren segurtasun-arauen katalogo bat ezartzea, bai eta Euskadiko Trenbide Segurtasuneko Agentzia sortzea aurreikustea ere. Agentzia hori Euskadiko trenbide-sistemako trenbide-segurtasunaz arduratuko den agintaritzak izango da, eta martxan jartzea erregelamendu bidez garatuko da.

2.- Araua onartzeko beharra eta egokitasuna

Euskadiko Trenbide Sektorearen Legearen aurreproiektuaren helburu nagusia da Euskadiko trenbide-sistemari buruzko esparru juridiko eguneratu eta nahikoa ezartzea, kontuan hartuta gaur egungo arau-esparru zaharkitua eta eskasa, eta trenbide-sektorea bat etorri behar dela Europako sektore-araudiarekin eta mugikortasun jasangarriarekin.

Horri dagokionez, Administrazio honek mugikortasun jasangarriarekin duen konpromisoa erabatekoa da, eta hori Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren azaroaren 9ko 11/2023 Legea indarrean jarri zenean gauzatu zen. Arau horrek ezartzen du trenbide-sarea garraio publikoaren eskaintzaren ardatz egituratzailetzat hartzen dela, eta, ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten ari ziren trenbide-zerbitzuek gain, 2025eko urtarilaren 1ean Euskal Autonomia Erkidegoari

eskualdatu zitzaizkion bidaiariak aldiriko trenbidez garraiatzeko zerbitzuei dagozkien Estatuko Administrazio Orokorraren eginkizunak (Bilboko eta Donostiako zabalera iberikoko aldirietako nukleoak eta Bilboko zabalera metrikoko aldirietako nukleoa), nahiz eta zerbitzu horiek egiteko baliatzen den azpiegitura Estatuaren eskumenekoa den oraindik ere (Estatuaren Interes Orokorreko Trenbide Sarea).

Horrek guztiak konplexutasun handiagoa eman dio Euskadiko trenbide-sektoreari, baina, aldi berean, aukera paregabea da lege-mailako arau bat sortzeko, sektore horri dagozkion alderdi guztiak arautuko dituen (azpiegitura, zerbitzuak, segurtasuna, ikuskatzeko eta zehatzeko ahala...).

3.- Egin nahi den arau-proiektuaren helburuak

Esparru juridiko integratua eta egungoa definitzea, honako helburu edo xede hauek lortzeko:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoan trenbideko garraio-sistema bat bermatzea, garraio publikoaren eskaintzaren ardatz egituratzaile gisa.
- b) Euskal gizarteak trenbideko garraioaren arloan dituen beharrei ahalik eta eraginkortasunik handienarekin erantzutea.
- c) Trenbideko garraioaren politika europar erkidearen garapena erraztea, trenbide-sistemen interkonexioa eta elkarreragingarritasuna eta garraio-zerbitzuen intermodalitatea bultzatuz.
- d) Trenbide-sektorean eragina izan dezaketen gaietan eskumenak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eta administrazio publikoen jarduketak koordinatzeko jarraibideak zehaztea.
- e) Trenbide-azpiegituren eraikuntza eta Autonomia Erkidegoaren eskumeneko garraio-zerbitzu berrien garapena arautzea, eta lurralde-, ekonomia- eta gizarte-kohesioa bultzatzea.
- f) Euskadiko trenbide-sistemaren eraginkortasuna bermatzea, eskura dauden baliabideak behar bezala erabiliz.
- g) Tren-enpresak merkatura sartu ahal izateko lizentziak emateko sistema arautzea.
- h) Tren-azpiegiturarako sarbidea arautzea, objektibotasunaren, gardentasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetan oinarritutako kapazitatea esleitzeko prozedura baten bidez.
- i) Salgaien trenbide-garraio zerbitzuak emateko lehia-baldintzak sustatzea, bertan ezarritakoaren arabera, objektibotasunaren, gardentasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatuz.
- j) Bidaiarien eta salgaien trenbideko garraio-zerbitzuak eraginkortasunez, jarraitutasunez eta segurtasun-baldintza egokietan emateko irizpideak ezartzea.
- k) Trenbide-zerbitzuak segurtasun-baldintzetan ematea sustatzea, arlo horretan EAEko trenbide-sarean diharduten eragile guztiei dagozkien erantzukizunak definitzea eta trenbide-segurtasunaz arduratzen den agintaritza autonomikoaren eskuduntzak zehaztea.
- l) Bidaiarien trenbideko garraioa interes publikokotzat jotzea.
- m) Erabiltzaileen interesak babestea, desgaitasunen bat duten edo mugikortasun murriztua duten pertsonei arreta berezia eskainiz, bidaiarien trenbide-garraio zerbitzuak kalitate- eta segurtasun-baldintza egokietan eskuratzeko eskubidea bermatuz, bai eta biktimei laguntza integrala ematea ere trenbide-istripuen kasuan.

4.- Egon daitezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak

Aurreko apartatuetan azaldutako inguruabarrak direla eta, beharrezkotzat jotzen da neurri espezifiko arauemaile bat egitea, eta ezin da bestelako irtenbiderik hauteman, erregulazioaren xedea kontuan hartuta.